



## **1/1993 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, apirilaren 20koa Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzeari buruzkoa**

### **833 TALDEA. SUSTAPEN INMOBILIARIOA.**

833.1 Epigrafea.—Lursailen sustapena.

Oharra: Epigrafe honek norberaren kontura eta izenean lursailak erosi edo saltzea hartzen du, eta halaber, haiek hiriztatu, lurzatikatu, e.a., guzti hori saltzeko asmoz eginik.

833.2 Epigrafea—Eraikunak sustatzea.

Oharra: Epigrafe honek norberaren kontura eta izenean eraikin osoak edo zatiak erosi edo saltzea jasotzen du, beste laguntzarik gabe nahiz hirugarrenen bidez eralkiak izan, guzti hori saltzeko asmoz eginik.

### **833 TALDEARENTZAKO OHAR AMANKOMUNAK:**

1. Bi epigrafe horietako kuotaren zati finkoa, nolana ere, lursailak edo eraikinak saldu diren ala ez kontutan izan gabe eskatuko da. Bide batez, metro karratu bakoitzeko kuotaren zatia, inorenganatzeak gauzatutakoan eskatuko da, edozein dela ere kontratu mota eta hitzartutako ordainketa modua, subjektu pasiboak urte natural bakoitzeko lehendabiziko hilabetean eraikitako edo eraiki beharreko, hiriztatutako edo hiriztatu beharreko eraikin metro karratuen aldaketan aitortzea aurkeztu beharko du Zerga Administrazio eskudunean, baldin eta eraikin horiek aurreko urtean inorenganatu badira, eta ez da aitortzen aurkeztu behar izango salmentarik egin ez denean. Urtarrilaren 1a baino lehen iharduera horretan aritzeari utziz gero, eraikitako edo eralki beharreko, hiriztatutako edo hiriztatu beharreko eraikinen metro karratuen aitortzea baja aitortzenarekin batera aurkeztu behar izango da, baldin eta eraikin horien inorenganatzeak uztea gertatu deneko urte berean gauzatuko balira.
2. Talde honetan sailkaturiko jardueren xedea babes publikoko etxebizitzan legeriari atxikitako higiezinak osatzen dutenean, metro karratu bakoitzari dagokion kuotaren zatia dagokionaren %50ekoa izango da.
3. Talde honetako kuotak eraikuntz ihardueragatik legozkiokeenetatik aske daude.